

INDIA

TXAKURRAK LODITZEN

Gosete andia da India'n. Euririk ez aspaldian, eta lurak legor eta siku.

Aita Urrutia, euskaldun mixiolariak, au diñosku:

«Dharampur mendietatik 23.000 gizon eta emakume, gazte eta ume gaxo jatsi jakuz janari eske.

Azurak eta azala, besterik ez gorputzean. Soloetan ereiteko azia ere, jan egin dabe. Lurpeko sustar eta zugaitzetako orriak ere amaitu dira.

Gugana datoz, gaxoak, 25 eta 40 kilometro bidez, zerbait jatekoen eske.

Jendetza pobre au gose gorrian aurkitzen dan bitartean, erri onetako andra aberats batek ba-ditu 32 txakur, lodi-lodi. Esnea eta aragia ugari txakurrentzat.

Mixiolariak, alkatearekin batean, joan gara andra onengana eta esan dautsagu:

Andrea, zure txakurak lodituten dozuzan bitartean gure menditarrak gosez ilten dagoz...

Andra oni begiak zabaldu jakozan.

Egun aretan bertan 30.000 peseten arroz a erosi eban, eta gosetien artean bere eskuz banatu eban.

Arrezkero beste askotan, bardin egin dau. Gu, eskerrak emoten joan gara, eta andra onek au esan dasku:

Nik emon bear eskerrak zueri. Oraintsu arte begiak euki arren, ez nuan ikusten. Orain ikusten asi naz. Urrutia'tar Migel Angel, S. J.».

Asia aldeko lur zabal onek orain 575 milloi bizilagun ditu; baiña urtero 15.000.000 bizilagun geiago diran eskero, urte gitxi barru 1.000 milloi izango dira.

GOSEA

Indian gosea ugari da, baiña ezin esan daiteke txarragora doanik.

Orain amar urte India'ko lagun bakoitzak 1,750 kaloria jaten zituan bizitzari eusteko.

Gaur, batez beste 1,900 kaloriadun janariak artzen dabez euren eguneroko bazkari bakarrean.

EZ-JAKIÑA

Gizonetan, % 40'k ez dakie idazten ez irakurten. Emakumeen artean % 13 bakarrik dira eskolatuak. India'ko erria zelan joan daiteke aurrera, guztiz % 70 analfabetoak izanik?

OSASUNA

5.000 bizilagunentzat osagille bat bakarrik dago. Geixo-etxeetan, barriz, 1.600 geixoentzat oe bat bakarrik dago.

Zenbaki au ulertu daigun, au esango neunke: Bilbo osorako 30 oe bakarrik egongo ba'lira, gure klinika eta ospiteletan.

Legenarra edo lepra ere asko zabaldu da India'ko gende ezeukien artean.

Mundu guztian 14 milloi lepradun izanik, 4.000.000 indiatarrak dira.

Eta txarrena da, geixo txar au ugaritzen doala. Orain 25 urte, lepradunak 2 milloi ziran, Gaur 4 milloi dira. Emendik 25 urtera geiago ala gitxiago izango ete dira?

EUSKALDUNAK INDIA'N

Euskaldun mixiolari asko dago India'n. Ekin ta ekin, lan ederra egiten dabe India'ren aurrerapenerako: eskolak, geixo-etxeak, ura aterateko zuloak... egiten. Ura da India'n geien falta dan gauzea. Baiña lur-azpian ur asko dago. Erakutsi egin bear ura ateraten. Orretan dabiz gure mixiolari geienak. Euskaldun mixiolariak.

GOIKOETXEA'TAR IÑAKI

Euskera napparroa'n

Ereiten dan aziak, leenago edo geroago, bere frutua emoten dau.

Bi urte dira Nafarro'ko mendietan bizi dan abade bateri esan neuntsela: ipiñi egizu ikastola bat zure errian.

Esan bakarrik egin neuntsan, eta gaur arte uste izan dot, alperrik berba egin nebala.

Baiña gaur bertan, abade orren eskutitz eder bat artu dot, au esanaz:

«Jaurrieta'n ikastola bat ipiñi dot, 2, 3 eta 4 urteko umeentzat. Ni oso pozik nago, eta ikastolea ondo dabil.

Jaurrieta'ko erri onetan euskerea ilda dagola esan leike, baiña biztuko da.



Egaurrieta'n ikastolea



Abaurre bietako lur errabuntzuak

Goiko Abaurrea'n, ostera, euskerea bizirik dago, baiña, zoritxarrez, an ezin izan dot aurten ikastolarik jarri, nok erakutsi aurkitu ez dodalako.

Datorren urterako aurkituko dogula uste dogu, alde batetik eta bestetik irakasleen billa gabizelako».

Zuk, Agur'eko irakurle, Jaurrieta eta Abaurrea non dagozan badakizu?

Artu egizu Euskalerrri'ko mapea, eta zoaz goi aldera, Irati basoetako aldera.

Erri polit-politak dira, zoragarriak, baiña zoragarriagoak izango dira, euskerea ango umetxoen ezpanetan entzungo dogunean.

GOIKOETXEA'TAR IÑAKI

ERDI-BIDEA

Labayen Jaunari:

Zure idazlana «NUN DAGO ERDI-BIDEA» irakurri dut, baita pozik irakurri ere.

Bai, erdi-bide ori aukeratu bear dugu, baiña zentzunez eta burrukarik gabe.

Geroago eta geiago gara, zorionez, erdi-bide ori maite dugunak, eta bide ortatik ibilli nai dugunak.

Zuk diozu: «Garbizalekeria «mordollokeria» baiño kaltegarriago izan liteke». Egia da. Orregatik, ez bata ez bestea. Erdi-bidea.

Baiña ez gaitzen geldi egon. Ibilten asi gaitzen.

Zuk, Labayen Jauna, lege bat emen duzu: «Kultura itz-berri bat... ingles, prantzes, aleman eta españolez erabiltzen ba'dute, guk ere ar dezakegu». Lege ederra eta aberatsa. Nik, beintzat, ala uste dut.

Lege, edo zure iritxi eder ori, eman duzun bezela, zergatik ez eman beste lege edo arau batzuk?

Nik batasuna egiteko, oiñarrizko lege batzuk artu bear ditugula, uste dut

Euskera batua egiteko nik, soziologiari, gramatika-filologiari eta itzaren erreztasun edo txukuntasunari begiratu bear diegula, siñisten dut.

Itzik zabalenak, geien edaturik aurkitzen diranak, guk erabilli bear ditugu. Amar euskaldunetik zortzik «txoria» esaten ba'dute, zergatik «xoria» artu bear dugu, batasuna egiteko?

Filologia bakarrik ezin diteke artu metrotzat batasuna egiteko. Izkuntza ez da arri zati bat.

Iru oiñarri auek: zabaltasuna, filologia eta erreztasuna artu ezkeror erdi-bide bat egiten asiko gara, uste dut.

Azkenez, lan guzti au euskaldunen artean asarrerik eta jauntxokeririk gabe egin bear dugu. Bakoitzak bere iritxia eman dezala, zentzunez, apaltasunez, eta zabaltasunez.

Onela jokutzen duanak gai ontan «ordagoa» irabaziko du.

GOITARKI